



Bidasoa-Txingudi
Mugaz-gaindiko
Partzuergoa

IRUN ⇄ HONDARRIBIA ⇄ HENDAYE

www.irunhondarribiahendaye.com



INTERPRETAZIO ZENTROAK – HISTORIA ETA NATURA

BIDASOKO INTERPRETAZIO ZENTROA MUGAZ GAINDIKO INFORMAZIOA



Bidasoko Interpretazio Zentroak 2013ko irailean ireki zituen ateak, Santiagoko Aduana zaharra Irungo Udalarri laga baitzioten. Berritu ondoren, udalak Bidasoa Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoari utzi zion haren kudeaketa. Partzuergoa Irunen, Hondarribiaren eta Hendaiaren arteko lankidetzarako erakundea da.

Honako elementu hauek osatzen dute zentroa:

- ⇒ hiru herriei buruzko turismo-informazioa,
- ⇒ Bidasoa, mugaz gaindiko lurralde gisa.
- ⇒ Santiagoko zubiko aduanaren historia,
- ⇒ "Eurovélo" Europako bizikleta-bideen sarea,
- ⇒ Santiago Bidea, Irundik barrena,
- ⇒ Pio Barojak ibaiari buruz egin zuen deskripzioa,
- ⇒ Bidasoko natur inguruneko biodibertsitatea.

Halaber, urtean zehar hainbat animazio antolatzen dira. Horien artean, nabarmentzekoak dira mugaz gaindiko lehiaketak, hala nola pinturarena edo arte digitalarena ("Ibai izena duen herrialde bat") eta haurrentzako marrazketarena ("Marraztu Bidasoa"). Horietako lanak urtero erakusten dira zentroan.

Ordutegi honetan dago zabalik:

- ⇒ irailtik ekainera bitartean: asteartetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, zubietan eta jaiegunetan izan ezik.
- ⇒ uztailetik abuztura bitartean: asteartetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara, zubietan eta jaiegunetan izan ezik; larunbatero eta igandero 10:00etatik 13:30era; eta ostiralera, larunbatero eta igandero 15:00etatik 18:30era.

INTERPRETAZIO ZENTROA TXINGUDI EKOETXEA



Txingudi Ekoetxea interpretazio-zentroa Plaiaundiko parke ekologikoan dago, Txingudiko paduren ingurunean. Irungo Pierre Loti ibiobidean dago, eta egunero irekitzen du 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara udaberrian eta udan, edo 10:00etatik 14:00etara eta 15:30etik 17:30era udazkenean eta neguan.

Txingudiko padurak Europako padura-eremurik garrantzitsuenetakoak dira; izan ere, inguru horretan 312 txori-espezie baino gehiago antzeman dira, Iberiar penintsulan ikus daitezkeen % 60. Esan bezala, hezegune horretan hegazti-fauna ugaria da, kontinenteko hegaztien migrazio-bide nagusietako batean baitago hezegunea.

Hegazti migratzaileen babeslekua da, eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremu gisa eta Batasunaren Intereseko Leku gisa aitortua dago nazioartean. Europako natur gune garrantzitsuen Natura 2000 sareko partaidea da, eta Nazioartean garrantzia duten hezeguneen Ramsar zerrendan sartuta dago.

Zentroak hiru areto ditu, eta haietan, informazioa ematen dute parkeari, Txingudiko badiari eta inguruko natur inguruneei buruz. Areto nagusian, badiaren maketa bat dago, eta informazio-panelak eta ukipen-pantaila duen puntu interaktibo bat. Inguru horretatik igarotzen ari diren hegaztiak ere ikus daitezke, ikus-entzunezkoen aretoan bisitarien eskura jartzen diren bi webcam-en bidez.

Zentroan, hainbat dibulgazio-jarduera ere antolatzen dira, hala nola bisita gidatuak paduretara, hegaztiak behatzeko ikastarokak eta eskola-tailerrak.

KULTURA ETA TURISMO INFORMAZIOKO ZENTROA ARMA PLAZA



Arma Plaza kultura- eta turismo-informazioko zentroa dibulgazio-zentro bat da, eta Hondarribiko baliabideen berri ematen du. Era berean, gonbita egiten die bertakoei zein bisitariari herriaren historia, ondarea eta kultura ezagutu eta goza dezaten. Karlos V. gaztelu eta paradorearen parean dago, eta 2009an zaharberritu zuten.

Ordutegi honetan irekitzen du:

- ⇒ Urtarriletik martxora: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 18:00etara, eta igandeetan, 10:00etatik 14:00etara.
- ⇒ Apiriletik ekainera: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 19:00etara, eta igandeetan, 10:00etatik 14:00etara.
- ⇒ Uztailetik irailaren 15ra arte: egunero, 09:30etik 19:30era.
- ⇒ Irailaren 16etik urria bitartean: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 19:00etara, eta igandeetan, 10:00etatik 14:00etara.
- ⇒ Azarotik abendura: astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 18:00etara, eta igandeetan, 10:00etatik 14:00etara.

Beheko solairuan, turismo-informazioa ematen da eta tokiko artisautzako produktuak saltzen dira, eta lau hizkuntzatan ematen da arreta: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Lehen solairuan, erakusketa iraunkor bat dago herri osoari (harresien barrukoa eta kanpokoa) buruzkoa, kartografia historikoaz, argazkiez, objektuez eta ikus-entzunezkoen osatuta. Bigarren solairuan, ikus-entzunezkoen areto bat dago, herriko pertsona adierazgarrien testigantzekin; eta erabilera anitzeko gune bat, aldi baterako erakusketak, jarduera-programak, hitzaldiak eta topaketak egiteko.

ERLAITZAREN ETXEA ASPOROTSTIPI



Erlaitzaren Etxea "Asporotstipi" baserri zaharrean dago, eta Itsasbazerretzeko Kontserbatorioarena da. Hendaiko sarreran dago, erlaitzeko errepidearen ertzean. Euskal kostaldeko geologiari, florari eta faunari buruzko informazio-puntu bat da, eta erakusketa iraunkorrak eta aldi baterakoak eskaintzen ditu. Ikus-entzunezkoen areto bat ere badago inguruko naturari, arteari eta gizarteari buruz.

Ordutegi honetan dago zabalik: 10:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 17:30era asteartetik larunbatera, 01/14tik 03/31ra bitartean; 10:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 18:30era asteartetik larunbatera, 04/01etik 05/31ra bitartean, jaiegunetan izan ezik; 10:00etatik 13:00etara eta 14:00etatik 18:30era, egunero jaiegunak barne, 06/01etik 09/30era bitartean, eta 10:00etatik 12:00etara eta 14:00etatik 17:30era, asteartetik larunbatera, jaiegunetan izan ezik, 10/01etik 12/18ra bitartean.

Urtean zehar, Euskal Itsasbazerreko Ingurumenaren aldeko Ekitaldien Zentro Iraunkorrak hainbat jarduera proposatzen ditu, eta bereziki udan, ibilaldi gidatuak eginez:

- ⇒ **Abbadiako eremua deskubritzea:** ibilbide bat, natur ingurune babestu bateko xendretan barrena (fauna, flora, geologia, historia), Pirinioak Atlantikoarekin bat egiten duten lekuan.
- ⇒ **Euskal Erlaitza deskubritzea:** ibilbidea Urruñako erdigunetik itsaslabar altuetaraino: ingurune-dibertsitate handia eta edertasun handiko paisaiak.
- ⇒ **Marea beheara delarik:** arroketa hurbiltzea, berriazko itsas fauna eta flora ikustera, bizi-baldintza bereziak egokituta baitaude. Benetako biodibertsitate-aitxorra, gure natur ingurunean ezkutatua dagoena.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.bidasoaturismo.com

www.hendaye-tourisme.fr

www.irun.org

www.hondarribia.eus

www.hendaye.fr